

Paulino Luesmak AHTri buruzko herri galdeketak «legea hausten» duela dio

LEITZA ▶

Zaldi ibilaldia eginen dute bihar

Aurrera Perra Taldeak antolatuta ▶ 7

ANOETA ▶ Helegitea aurkeztea agindu dio Espainiako Abokatutzari ▶ 4

LEIRE MONTES ▶ 'KANTXATIK'-EKO KOORDINATZAILEA

«Garrantzi gehiago eman behar zaio gurea den kirolari»

Euskal Pilota Federazioak 'Kantxatik' aldizkari berria kaleratuko du ▶ 5



N. URBIZU

ANOETA ▶

Datorren astean ekingo diote Mendi Asteari

Diaporamak, eskalada saioa, mendi irteera, ... izango dira ▶ 2

TOLOSA ▶

Bonberenean ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburuan

Gaur eta bihar, kontzertuak 22:30ean eta Skate Txapelketa bihar ▶ 2

ALEGIA ▶


Pako Larrañagak Espainian bete ahalko du zigorra

Espainiako Kongresuak onartu du ▶ 2

MARI KRUZ AGIRRE ▶
LEABURU-TXARAMAKO
ALKATEA

«Akordioetara ez heltzeko jarrerak izan du eragina»

Ia lau hilabete ondoren hautatu dute alkatea ▶ 6



Agirre eta Adurriaga. A. IMAZ

AMALIA ADURRIAGA ▶
ANV-EAE-KO KIDEA

«Arazoak amaituko ziren gestora osatuz gero»

Zerrendaburu bezala aurkeztu zen ▶ 6

ANOETA ▶ MENDIA

Ekitaldiz beterik, astelehenean hasiko da Mendi Astea

Diaporamak, film proiektzioa, mendi medikuntza ikastaroa, eskalada saioa eta mendi irteerak osatuko dute egitaraua

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak antolatuta, datorren astelehenean igandera Mendi Astea izango da ekitaldi ugariarekin.

Astelehenean asteazkenara diaporamak izango dira, eta ostegunean film proiektzioa. Ikus-entzunezko hauek udal txean izango dira 19:00etan.

Ostiralean eta larunbatean ikastarok eta klase praktikok izango dute lekua. Ostiralean mendiko medikuntza eta mendi sorospenei buruzko doako ikastaroa izango da, udal txean bertan. Euskaraz emango dute, eta kiroldegian (943 65 13 33) eman ahalako da izena hilaren 24ra arte. Larunbatean, bestalde, eskalada saio praktikoa egingo dute Santa Barbaran (Hernani). Hau ere doakoa izango da. Edonork har dezake parte, gaztetxoek (10 urtetik aurrera), gazteek eta helduek.



Pasa den urteko Mendi Asteko une bat. HITZA

Kasu honetan ere, kiroldegian eman ahalako da izena hilaren 25era arte.

Igandekoa izango da Mendi Asteko azken ekitaldia. Mendi

irteera egingo dute Adarrara (Urnieta). 3 ordu inguruko buelta izango da, eta bertan, mendi sorospeneko praktikak ere egingo dituzte.

ASTEASU ▶

O'liden's Band kultur jardunaldien baitan, bihar

22:30etik aurrera izango da Zarauzko taldearen emanaldia, Iturri-Ondo jatetxean

ERREDAKZIOA

Bihar O'liden's Band taldearen emanaldia izango da Iturri-Ondo jatetxean, Asteasun antolatutako kultur jardueren baitan. Kontzertua 22:30ean hasiko da, eta ordubeteko iraupena izango duela aurreikusitako antolatzailuek.

O'liden's Band banda zarautarrak «musika klasikoa eta umorea» nahastean dituzte eta adin guztientzako saioa eskainiko du.

TOLOSA ▶ KULTURA

Kontzertu ugari eta Skate Txapelketa izango dira asteburuan Bonberenean

Gaur eta bihar dira kontzertuak, 22:30etik aurrera; ekitaldi gehiago izango dira bihar

ERREDAKZIOA

Kontzertu ugari izango dira gozatzeko aukera izango da Bonberenean asteburuan zehar. Hain zuzen, gaur, Golpe de estado, Combat Rock eta Sospechosos taldeak ariko dira, 22:30etik aurrera. Hiru talde hauek Oñatitik datoz bereien musika errotuak ezagutarazteko asmoz.

Bihar, berriz, HR eta Stepy Selekta taldea igoko dira Bonbereneako taula gainera. Hauek ere 22:30etik aurrera eskainiko dituzte euren emanaldiak. HR eta Stepy Selekta, Selekta Kolektiboa eta Bad Sound System taldeko partai-

deak dira eta «giro aparta jartzera datoz beraien erritmo eta erimekin».

7. Skate Txapelketa

Kontzertuez gain, izango dira ekitaldi gehiago ere. Izan ere, 7. Skate Txapelketa eta graffiti erakustaldia antolatutako bihar. Egun osoan graffiti erakustaldia ikusgai izango da, eta 16:30etik aurrera Skate Txapelketari emango zaio hasiera. 16:00etatik aurrera eman ahalako da izena. Sariak Donostiako Slap eta Tolosako Nimbin dendaren eskutik izango dira.

EGITARAU ▶

URRIAK 22, ASTELEHENA

19:00. *Gasherbrum II* diaporama. Zizurkilgo Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkolak eskainia. Udal txean izango da ikusgai. Euskaraz.

URRIAK 23, ASTEARTEA

19:00. *Kun mendia (India)* diaporama. Anoetako Iñigo Gonzalezek eta Iban Yurritak eskainia. Udal txean izango da euskaraz.

URRIAK 24, ASTEZKENA

19:00. *Patxi mundu bertikalean* diaporama. Patxi Usobiagak eskainia, udal txean, euskaraz.

URRIAK 25, OSTEGUNA

19:00. *Tocando el vacío* filmaren proiektzioa. Udal txean, gaztelera.

URRIAK 26, OSTIRALA

19:00. Mendiko medikuntza eta mendi sorospenei buruzko ikastaroa. Udal txean, euskaraz.

URRIAK 27, LARUNBATA

16:00. Eskalada saio praktikoa Santa Barbaran (Hernani). Hitzordua, plazan.

URRIAK 28, IGANDEA

09:00. Mendi irteera Adarrara (Urnieta). 3 orduko buelta. Hitzordua, plazan.

KALE KANTOITIK ▶
JOXEMI SAIZAR

Txikiak eta bizitza handiarekin

Orendaingo alkateak aste honetan zioen TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HITZAN herri txikiak lotokiak ari direla bihurtzen eta horren aurka ari direla lanean, herriei bizitza emateko. Herri txikiak husten hasi zirenean etxe berriak eraikitzen hasi ziren eta horrela etxe ederrez bete da herri asko, baina horrekin bakarrik ez da lortzen herriari bizitza ematea. Haurtzaindegia, eskola, gizarte zerbitzuak, kultur ekitaldiak eta horrelakoen lortzen da hori. Pixkanaka. Lan asko egingez. Horretan kaltetuenak Tolosako baserri auzoak izan dira orain arte: Bedaio, Urkizu, Aldaba eta abar. Badirudi etxe berriak egiteko proiektuak badirela. Ea aurrera ateraten diren, nahiz eta urte batzuetako atzerapena izan.

Hiri auzoen bizitasuna antolaketa gaitasunean neurtzen da nolabait. Amartotz izan da beti izaera bereziki lortzeko borrokatu duena, ia errepublika errebindikatu arte. Beste auzo batzuen helburua apalagoa da: jaiak antolatzearekin konformatzen dira. Berazubi, Izaskun, Alde Zaharra, urte batzuetan Arramele eta Belate... San Estebanen berriz, ez dituzte festak antolatzen, Kultur Asteaz moztortzen dituzte ekitaldiak. Hala ere parranden listoia ez dute beste auzoetan baino baxuago jartzen. Eutsil!

Bukatzeo, arden 50 urte bete dituen eta bizirik dirauen talde baten aipamena egin nahi nuke: Uda-berri dantzari taldea. Ez da erreza boluntarioez osatutako taldeek horretara iristea. Ehunka partaide pasatu dira urte hauetan, une hobeak eta une ahulagoak ezagutu, baina sorrerako helburuekin bat egingez: euskal dantza eta kultura ezagutzea, indartzea eta zabaltzea. Joan zen astean bertso afaria antolatutako zuten, bihar, berriz, Benito Lertxundiren kontzertua izango da Leidor aretoan, eta urtea amaitu aurretik beste zenbait ekitaldi ere izango dira dantzari taldearen eskutik. Aupa Uda-berri!

TOLOSA ▶

Belate pasealekua itxiko dute ibilgailuentzat

ERREDAKZIOA

Rondilla kalearen luzapena eremuko lur azpiko aparkalekuak eraikitzeo obrak direla eta, garabi dorre bat jarriko dute, eta hura jartzeko, ezinbestekoa dela Belate pasealekuko sarreran bidea itxtea ibilgailurik ez pasatzeko azaldu dute Udaletik.

Bihar 07:00etatik etxi 23:00etara arte egongo da bidea itxita. Hala, Belate auzoan eta Hernialde, Alkiza, Anoeta eta Iruran bizi diren gidariekin Donostia-Tolosa autobideak Iruran duen irteera erabili beharko dute. Bestalde, Gorriti eraikinean garaiekin dutenek Arrameleko zubitik barrena ibili beharko dute sartu-irteteko.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Larrañagak kondena Espainian betetzea onartu du Kongresuak

Filipinetako ituna onetsi du Espainiako ganberak, alegiar jatorriko presoari Espainiako kartzeletako araudia aplikatuz



Pako Larrañagaren gurasoak Alegiara etorri ziren, egin zuten bidaia aprobetxatuz. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Espainiako Diputatuen Kongresuak atzo Espainia eta Filipinek sinatu zuten ituna onetsi zuten. Hortaz, Espainiako kartzelean batean bete ahal izango du zigorra pako Larrañaga presoak.

Orain, aplikatu ahal izateko Filipinetako Senatuak hori baliozkotu behar du, eta hau datorren asteetan emango da. Atzo Kongresuko plenoan PPren Francisco Ricoma eta PSOEren Juan Moscoso diputatuek itunaren garrantzia gogoratu zuten, ez baita horrela Pako Larrañaga bakarrik egoera hobera pasako, «Filipinetan dauden espainiar guztiak» baizik.

Berdin gertatuko da Espainiako kartzeletan dauden Filipinetako presoekin, haien lurraldean bete dezaketela zigorra. Moskosoaren kalkuluen arabera, ituna indarren egon-

go da Gloria Macapagal Filipinetako Lehendakariak Espainiara egin behar duen bisita ofiziala baino lehen. Pako Larrañagak hilabete honetan 10 urte betekatu ditu kartzelean, Filipinetan. Hori dela eta, diputatuaren esanetan, «Larrañagari onurak ekarriko dizkio erabaki honek, espainiar hiritar gisa dituen eskubideak eskuratu ahal izango baititu espainiar kartzeletan». Gaineratu du ere, «Filipinetako eta Espainiako instituzio nahiz gizartearentzako lorpen handia izan dela». Hau, heriotz zigorraren desagerpenaren ondotik etorri da. Non Filipina izan den lege hau indarretik kendu duen asiarrak estatu bakarra.

Hamar urte kartzelean

Pako Larrañagari beste sei mutilekin batera ezarri zioten heriotz-zigorra, 2004ean; hasieran, ordea, biziarteko kartzela-

zigorra ezarri zioten, 1997an, hain zuzen. Filipinetako justiziak bi neska hiltzea, bortxatzea eta hiltzea leporatu zion Pako Larrañaga euskaldunari. Aurten, apirila aldera, heriotz zigorra kendu eta ordainez, biziarteko kartzela zigorra ezarri zioten. Filipinetako lehendakariak, Aste Santuan iragarri zuten «heriotz zigorra ezarrita zuten 1.000 presoek zigor hori kendu eta bizi diren arteko zigorrak trukatu» zietela, hala «heriotzera zigortutako presoek ez omen zelarrik geldituko herrialde hartan», beti ere gobernuaren hitzetan. Hala, salto garrantzitsutzat jo zuten Larrañagaren ahaideek. Orain berriz, azken itunari esker, Espainian igaro ahal izango ditu hurrengo urteak. Dena den, oraindik ere zehazteko dago zein kartzeletara bidaliko duen preso euskalduna eta noiz ekarriko duten Iberiar penintsulara.

AMASA-VILLABONA ▶

Behar-Zanakoak gaur eta bihar Gipuzkoakoan

Gipuzkoako Eskuzko Txapelketaren baitan, Behar-Zanako pilotariak zenbait partidak jokatu dituzte. Gaur 21:00etan, Aranburuk buruz buru Oiarpe taldearen aurka Oiarzunen jokatu du. Lizaso-Altuna bikoteak berriz, Arrasaten, bertako taldearen kontra. Bihar berriz, Amasako pilotalekuan, 15:30etik aurrera kadete, jubenil eta senior mailako pilotarien hiru partida ikusi ahal izango dira.

ANOETA ▶

Dantza Soka egunerako izen-ematea

Urtero legez, Dantza Soka Eguna ospatuko da urtarriaren 26an Anoetan. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi dutenek, Itzuli tabernan jarrita dauden zerrendetan izena eman dezakete 12 urtetik gorakoek. Izen-emate epea azaroaren 26an amaituko da. Bestalde emateguak abenduan hasiko dituzte. Hala, Kultura batzordeak animatu nahi ditu herriarrak ekimen honetan parte hartzea.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Txolarrek atek zabalduko ditu bihar

Txolarre irratia bete-betean sartu da ikasturte berrian. Hala aurreko denboraldietan, garai honetan bezala, eskualdeko lagunei atek irekitzea erabaki dute. Horretarako, antolatuta dute bihar, atek irekien jardunaldia. «Tolosaldeko norbanako, eragile eta azken batean, irratia ezagutu nahi duen oro gonbidatuta dago gure estudioetara azaltzera» azaldu dute Txolarrekoek. Saioa, 11:00etatik 14:00ak bitarteko izango da. Hurbiltzen direnei irratia erakutsi, irratigintzaren inguruko zalantzak argitu eta irratia lotuta dituzten asmoak gauzatzen lagunduko diete. Txolarre irratia Anoetan dago kokatuta, Alkizarako bidean, Edurka pabiloian. Edozein zalantza argitzeko 943 698038 telefonora dei daiteke edo emaila idatzi txolarrefm@euskalnet.net helbidera.

TOLOSA ▶

Gaur eta bihar Beotibarren, Aurrera Saiaz

Gaur Gipuzkoako Kluben Artek Txapelketaren baitan, Aurrera Saiaz pilota eskolako mutilek bi partida jokatu dituzte Beotibar pilotalekuan, eta bihar berriz, hiru. Gaurkoan, 21:00etan, Unai Aspe eta Iker Huarte seniorrak Añorgaren aurka. Ondoren, Iñigo Lizaribar jubenila Azkoitiko pilota eskolaren aurka. Bihar berriz, 10:00etan, Marko Montiel eta Julen Mujika seniorrak, Antiguakoen kontra. Bigarren partidari, Ugaitz Renobales eta Eneko Galarraga ariko dira Lagunak aurka. Bukatzeko, Baez anaiak ariko dira Ozkarbiren kontra.

TOLOSA ▶

'Emetik' bertso kabareta ikusgai gaur, Frontonen

Aitzol Udal Euskaltegiak antolatuta, *Emetik* bertso kabareta izango da gaur gauean. Ekitaldia Fronton kafetegian izango da, 23:00etatik aurrera Kabaretero eta kabaretera lanetan ariko dira, Mikel Goukaria musikaria eta Ohiane Perea, Onintza Enbeita eta Iratxe Ibarra bertsolariak. Hiru emakume bertsolariren saio esperimentalak da *Emetik* bertso kabareta. Koloretzua, gordina, umoretsua, eta pikantea. Kabareten izpiritua bere eginez, entzule-bezeroei une entretenigarria eskaini eta emakumeen ahotsak eta bizipenak bertsoan ematea du helburu.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK
GIPUZKOAN
120.000
IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ANOETA ▶ AHT

AHTri buruzko galdeketaren aurkako helegitea aurkeztea agindu du Paulino Luesmak

Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariaren ustez Anoetan egin nahi den herri galdeketa «legea hausten du»; Udala eta Elkarlana kritiko azaldu dira

IMANOL GARCIA

Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak, Paulino Luesmak, Anoetako Udalak abenduaren 2an AHTri buruz egingo duen herri galdeketaren aurkako helegitea aurkeztea agindu dio Espainiako Abokatu-tzari. Luesmaren ustez, galdeketa «legea hausten du. Legeak finkatzen du udalek galdeketa udalari dagozkion gaietan soilik egin ditzaketa, eta galdeketa erabakitze oso bilkurak gehiengo adostu behar duela eta Espainiako Gobernuaren baimena behar duela».

Baldintza horiek «ez direla ematen» dio Luesmak eta horregatik herri galdeketa «le-

gedia hausten du». Luesmak gaineratu duenez, «AHT eraikitzea ezinbestekoa da EAERen garapenerako, Gobernuaren babesa du eta euskal gizartearen estamentu ezberdinen gehiengo alde dago».

Erabaki honen aurrean, Periko Peñagarikano Anoetako alkateak azaldu du AHT bezalako proiektu bati buruz herritarrei galdetzea «guztiz bidezkoa» dela. «Herritarrei galdetzea ez al da eragiketa demokratikoa?», galdetu du Peñagarikanok. Beste hainbat proiekturen inguruan «herritarrei galdetzen zaie eta Udalera etortzen dira», zehaztu du alkateak. Hainbat herritan AHTri zein erraustegiari buruzko herri galdeketa egin direla dio

alkateak. «Orain beldurra ematen die horrelako kontsultak egitea?», gaineratu du alkateak.

Bere aldetik, AHT Gelditu! Elkarlanetik azaldu dutenez, «gure lanarekin jarraituko dugu. Informazio kanpainarekin jarraituko dugu eta abenduaren 2an herri galdeketa egiteko asmoa dugu». Albistearen berri prentsa bidez jaso dutela azaldu dute eta herri kontsulta egitea «eragiketa demokratikoa» dela zehaztu dute eta herriko eragile guztien babesa dutela gaineratu dute. «Inguruko beste herritan, Alegiatan eta Itsasondon, herri galdeketa egin dituzte. Ez dakigu zergatik Anoetan ezin den berdina egin», esan dute.

AHTren inguruko mozioa

Hilaren 4an Anoetako Udaltzarak egindako osoko bilkuran AHT Gelditu! Elkarlanetik aurkeztutako mozioa onartu zuen, ANV-EAEk duen gehiengoari esker. Hiru puntu zeuden mozioan eta EAJk hala eskatuta banaka bozkatu ziren. Lehenengo puntuan AHTri buruzko informazioa zabaltzearen aldekoa zen eta hor EAJk baiezkoa bozkatu zuen. Bigarren puntu horri galdeketa egitea eskatzen zen eta hor EAJ abstentitu egin zen. Hirugarrengoa Espainiako Gobernuari eta Eusko Jauriaritzari obrak geldiaraztea eskatzen zitzaion eta puntu horretan EAJk ezezkoa bozkatu zuen.

ANOETA ▶

Batzarrera deitu du ezker abertzaleak bihar goizerako

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak herri batzarrera deitu du biharko, 11:00etan, udaletxean, herriko «ezkier eta abertzale orori» deia zabalduz. «Azken egun hauetan argi geratu da PSEk, EAJren ezinbesteko laguntzarekin, zergatik eta zertarako hautsi zuen negoziazio prozesua», azaldu dute. «Kontziente ziren ezker abertzaleak mahai gaineratutako proposamena onartzu gero, gatazka behin betikoz amaitu eta Euskal Herria askatasunerako bidean jarriko zela». Horregatik, ezker abertzaleak «inoiz baino beharrezkoagoa» ikusten du beraien proposamena «gizarteratu eta horren aldeko indar metaketa burutzeari».

Ondorengo gaiak jorratuko dituzte batzarrean: egoeraren balorazioa; aurrera begirako ildoak eta herriko plangintzaren aurkezpena.

VILLABONA ▶ KIROLAK

Gipuzkoako xakelari onenak Kultur Etxean neurtuko dira txapelaren bila

I. GARCIA

Nagusien mailako Gipuzkoako Xake Txapelketa jokoan izango da Villabonan, bihurtik hasita. Txapelketa Villabonako Xake Joko Elkarte ari da antolatzen eta Kultur Etxean egingo da. Guztira zazpi larunbata irauango du txapelketak eta beraz, abenduaren 1ean amaituko da. Larunbata guztietan 16:00etan hasiko dira partidak. Gipuzko-

ako xakelari onenak ariko dira lehen. Horregatik, herrialdean ikus daitekeen maila handieneko xakeaz gozatu ahalduko afizonatuak. Sarrerarik ez da ordaindu behar partidak ikusteko.

Azken urteetan txapelketa irabazi duen Ifügo Argandoña donostiarra da faborito nagusia. Villabonako elkartetik Unai Iraola billabonatarra eta Juan Ignacio Saenz donostia-

rrak parte hartuko dutela baieztatu dute. Izan ere, lehen parte hartzeko lehenengo mailako jokalaria izan beharra dago edo xakelari izaten duten sailkapenean 1.950 puntu baino gehiago izatea. Horrez gain, federatuta izan behar du. 25-30 jokalariek inguruko parte hartzea espero dute antolatzaileek.

Sistema suitzarra

Txapelketan sistema suitzarra erabiliko da, hau da, partidak irabazten dutenek beraien artean jokatu dute eta galtzen dutenek beste horrenbeste. Sistema horrekin, jardunaldiak pasatu ahal, maila bereko jokalariek beraien artean jokatu dute.

Partidek lau ordu baino gehiago irau dezakete. Partida irabazten duenak puntu bat jasotzen du eta berdintzen duten puntu erdia bakoitzak. Epaile lanetan Ramon Etxeberria tolosarra ariko da.

JUANJO VILLENA ▶ VILLABONAKO XAKE JOKO ELKARTEKO KIDEA

«Xakeari bultzada eman diezaioke herrian»

Utzita izan bazuen ere, semearen interesarekin batera ekin dio berriro Juanjo Villenak (Bartzelona, 1968) xakeari. Oraingoan, antolatzaile lanetan dabil, Villabonako Xake Joko Elkarte kide bezala.

Nolatan egingo da txapelketa Villabonan?

Elkartetik herrian egitea eskatu genuen. Gero, federazioak eskariak ikusi eta herria aukeratu du. Orain 30 urte inguru jokatu zen azkeneko Villabonako Gipuzkoako Txapelketa. Herrian xakeari bultzada emateko balio dezake eta afizionatuek Gipuzkoako xakerik onena ikus dezakete.

Zenbatero biltzen zarete elkarteak?

Ostiralean 19:00etatik 21:00etara elkartzen gara Kultur Etxean. Guztiz irekita gaude jende berria etortzeko.

Xakea pertsona azkarrentzat bakarrik da?



I. GARCIA

Gustatzen zaionarentzat da. Kirol honek arau batzuen barruan erabakiak hartzea erakusten ditu eta adimena gartzan laguntzen du.

Agidanez, xakea kirola dela defendatzen duzue.

Noski. Partida luzeak jokatu ondoren, gehiago kostatu izan zait nekeari buelta ematea futboleko partida baten ondoren baino. ◀

BERRIaren edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile lanpostua betetzeko pertsona bat behar da.

Erreferentzia: 200710 EH-DP

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Sei hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hastea (azaroran).

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, urriaren 26a baino lehen.

LEIRE MONTES ▶ 'KANTXATIK' ALDIZKARIKO KOORDINATZAILEA

«Gurea den kirolari garrantzi gehiago eman behar zaio»

Pilota eta euskara baturik daude 'Kantxatik' aldizkarian, eta afizionatu nahiz profesionalak izango dute tokia

NEREA URBIZU

Kantxatik begira egindako aldizkaria, hori da Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren (GEPP) aldizkari berria, datoren astean argia ikusiko duen pilotari buruzko aldizkaria. **Kantxatik** izena jarri diote; hala argitu du Leire Montesek, Gipuzkoako Pilota Federazioko komunikazio arduradunak (Tolosa, 1979).

Baten batek pentsa dezake dagoeneko pilotaz asko idazten dela, futbolaren ondoren pilotaz idazten dela gehien.

Niri futbola gustatzen zait, baina hala ere garrantzi gehiegi ematen zaio. Besteak (pilota barne) futbola ez dagoen asteburuetan dituzte gehiago. Baina **Kantxatik** aldizkaria euskal pilotarekin lotuta dagoen hiruilabetekaria da, eta euskara hutsean dago. Gurea den kirolari garrantzi gehiago eman behar zaio.

Zergatik Kantxatik izena? Zein da asmoa?

Kantxatik, kostatu zitzaigun erabakia hartzea, pilotarekin lotutako hitz bat eta euskaraz nahi genuelako. Hitz asko gaztelaniatik eratorritakoak dira, edo moldatutakoak. Hori ez genuen nahi, aldizkari guztia euskara hutsean delako, besteak beste. Erabaki genuen **Kantxatik** jartzea, oso ohikoa delako hitza, erraza ulertzeko. Jendearen parte-hartzea ere nahi genuen, jendea protagonista izatea, alegia. Aldizkari hau frontoitik bertatik egindakoa da, barrutik, pilotariek beraiek denon artean eginda. Denona da, jokatzen dutenena; zentzu horrekin ere eman zaio izena.

Zein gai jorratuko ditu?

Atal asko ditu, baina pilotako modalitate guzti-guztiak jorratuko ditu. **Editoriala** atalak pilotarekin lotutako gai bat hartuko du, eta iritzia emango du. **Erreportai orokorra** izango da ere: hau osatuena da. Jokalari bati egingo zaio **elkarrizketa**

aldizkari bakoitzean. Printzipioz, edozeini egingo zaio, ez profesionali bakarrik, inolaz ere. Ondoren, **Informazioa** atala dago, hau da, agenda moduko bat. **Galdezka** izeneko atala ordezkariaren bati, botillero, edo prestatzaile bati egindako elkarrizketa izango da, haren esperientzia kontatuz (lehen alean Ramon Arregi izango da). **Beste jokamoldeei** buruzko informazioa emango dugu ondorengo atalean, edo beste la pilota elkarte bati egindakoa. Lehenengo honetan erreboteaz ariko dira.

Irakurleek ere izango dute protagonismoa.

Bai. Izan ere, hurrengo atalak **Zure iritzia** izena du, eta bertan webgunean jasotako iritziak, besteak beste, argitaratuko ditugu. Interesgarriak argitaratzen joango gara. Ondoren, aldamean pilotariei zuzendutako arloa dago, teknikoagoa, hau da, nola, zergatik entrenatu, dietak eta abar landuko ditu eta Igor Gutierrez arduratuko da (**Aholkularitza tekniko**). Jendeak kontsultak egin ditzake. Arlo tekniko honen lotuta, lehenengo alerako zozketa bat egingo dugu, ASPEn laguntzarekin: galderak bidaltzen dituztenen artean egingo da, eta Irujoren kamixeta sinatuta izango da zozketatuko duguna.

Pilota profesionalarekin lotutakoa zer da zehazki?

Berez, gure asmoa pilota afizionatuari indarra ematea da, azken batean federazioak hori lantzen du, eta horren inguruan hutsunea dagoela ikusten dugu. Albiste gehienak profesionalenak eta eskuzkoa dira. Baina tarte edo atal honetan **Pilota profesionalari** egin diogu lekua: horretarako, profesionalen pilota enprekin jarri gara harremanetan eta ASPEK kolaboratzeko jarrera agertu du. Lehen alean Asier Arrutiri egin diogu elkarrizketa. Bestelako gaiak bi azken



N. URBIZU

orrietan izango dira (**Laburrean** eta **Azkena**): kasu honetan, Gipuzkoako Pala Txapelketa eta Babesku izango dira.

Helburua zein da?

Euskal pilotaz argitaratzen dena **Berrian**, **Garan** eta **HITZAN** ikusten da, baina aldizkaririk ez dago Gipuzkoan, are gutxiago euskaraz. Guk euskara eta pilota batuta ikusten ditugu: Euskal Herriaren kulturaren zati garrantzitsua da pilota, ezaugarri bat. Pilota munduko jendeak nahiago izaten du euskaraz egitea, eta harreman normaltasunez euskaraz egin. Horiek beraiean neurritan egindako aldizkaria behar

dute. Euskaraz izateari ematen diogu garrantzia. Bestalde, hutsunea ere afizionatuetan ikusten dugu, emakumei buruz ere gutxi idazten da, pilota eskolak gutxi azaltzen dira... Federazioa garen aldetik bateratzeko leku bat bezala da **Kantxatik**. Gipuzkoa mailan hasi gara, oraingoz.

Zuen egitasmoa izan da?

Elkarlana **Argia** eta federazioaren artean egin da. **Argia**ko ere ikusi zuten aldizkari zehatz honen beharra, eta federazioarekin batera egitasmoa egin da. Erredakzio lana eta inprenta **Argiak** egin du. Azken batean, guk ez ditugun baliabi-

FITXA ▶

Izena. *Kantxatik*.

Jorratzen duen gaia.

Pilota modalitate guztiak eta maila guztiak.

Formatoa. Aldizkaria, hiruilabetekaria (urtean lau ale).

Orrialde kopurua. Hogei, guztiak koloretan.

Ale kopurua. 1.000 ale.

Noia lortu.

Harpidetza bidez.

Harpidetza egiteko bideak.

leire.gepe@gmail.com;

kantxatik@gmail.com;

www.gipuzkoakoeuskalpilota.com; 943 47 14 63.

Kuota. 10 euro urtean.



deez arduratzen dira. Federazioa edukiez eta koordinazio lanez arduratzen da. Gero birpasatu egiten dugu.

Nola lor daiteke?

Kioskoetan ez da egongo. Harpidetza urte bateko egin behar da, eta harpidedunek postontzietan jasoko dute, urtean lau aldiz, 10 euroren truke. Emailaz eta telefonoz egin daiteke. Horretaz gain, aldizkarian bertan harpide egiteko orri bat egongo da. Bestela, helbide honetan egin daiteke: *kantxatik@gmail.com*. Hainbat enpresek publizitatea jarri dute, eta hauei esker dago aldizkari hau: eskertzekoa da.

Gizartean zein paper beteko du?

Pilotan ibiltzen den jendea hutsune bat dagoela nabaritzea eta aldizkariaren beharra sentitzea nahi dugu. Euskararen normalkuntzan ere, noski, lan egingo du aldizkariak.

hitza Harpidedunen txokoa

Leidorren Urriak 20, **larunbata 20:00etan** izango den **Benito Lertxundiren** kontzerturako **sarrerak zozketatu ditugu** eta hauek dira irabazleak:

- ▶ 31460 Miren Ibarbia (Zizurkil)
- ▶ 28428 Enara Agerri (Hernialde)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



MARI KRUZ AGIRRE ▶ LEABURU-TXARAMAKO ALKATEA

«Jarrerak eragin handia izan du akordio batera ez heltzeko garaian»

Bide Berriak-eko kidea da Mari Kruz Agirre, zerrendetan bigarren postuan aurkeztu bazen ere, gaur egun alkatea da

ASIER IMAZ

Leaburu-Txaraman, hauteskundeak igaro eta ia lau hilabetetara aukeratu dute alkatea. Bide Berriak Hautesle Elkarteko Mari Kruz Agirrek (Tolosa, 1955) atzerapenaren arrazoiak eta herriko giroa nola aurkitzen den azaldu du.

Zer gertatzen ari da Leaburu-Txaraman?

Alderdien Legearen istorioarekin, bi talde lanean eta pakean egon beharrean, bat debekatu egin zuten. Gu galki aurkeztu ginen hauteskundeetara eta hemengo emaitzen arabera, guri hiru eta beraietara lau zinegotzi tokatzen zaizkie. Beraiek Udalean egon daitezten, konponbidea bilatzen ibili gara eta azkenean ez gara adostasun batera iritsi.

Lehen udalbatzarrean, zazpiti hiru zinegotzi bakarrik hartu zenituzten. Zergatik?

Konponbide bat bilatu nahi genuelako, horregatik hartu genituen hiru bakarrik.

Hasieran alkatetza ez zenuten hartu nahi izan, baina gero bai. Zergatik?

Hori esan digutelako. Idatzi batean beraiek, alkatetza nola ez genuen hartzen esan zuten. Udala ezer egin ezin geratzen zela. Hauteskundeak eta gero, Diputazioara joan ginenean ere, Udala funtzionamenduan jartzeko alkatetza hartzea beharrezkoa zela esan ziguten.

Bide Berriak-eko zerrendaburuak alkatetzari uko egin zion, «herrian pakean eta gizatasunean oinarritutako bikididetan sinestean dugulako» arrazoituaz.

Jendeak guri botoa eman digu eta guk ezin dugu Udala funtzionamenduan jartzeari uko



A. IMAZ

egin. Eta ez guri bozkatu digutenak bakarrik, herritarrek Udala funtzionamenduan behar dute. Legeak ez badigu uzten eta akordio batetara ez bagara iristen, Udala behintzat martxan jarri behar da.

EAE eta Bide Berriak behin baino gehiagotan elkartu zarete. Zein helbururekin?

Harremanak hobetzeko eta Aretxabaletan (Gipuzkoa) egin zen bezala egiteko. Han, Aralar, EA eta ANV-EAEn artean akordio bat egin zuten, nahiz eta azkenean aurrera ez irten. Guk hori aurkeztu genuen. Helburua beraz, konponbidea eta beraiek ere Udalean egotea zen.

Zein modutan?

Lehenbiziko momentun lau eta hiru.

Eta ondoren?

Irainak eta mehatxuak nahiz genuen, baina gero ez gara konpondu.

Zergatik ez zarete konpondu? Irainak eta mehatxuak egon dira. Hauteskundeetara aurkeztu bezain azkar pintadak hasi ziren. Hauteskunde egunean karteletan, lapurtu nahi digute eta antzekoak idatzi zituzten. Gu herritarrak gara eta garbi jokatzekotan horrelako gauzek ez zuten egon behar.

Beraz jarreratik ez da iritsi akordioa?

Jarrerak eragin handia izan du. Gure taldeko kideei pertsonalki ere joan zaizkie irainekin. Batera lan egin eta akordio batera iritsi beharrean, zuk hau egin duzu eta ez dakit zer esanaz ibili dira. Hori ez da giro egokia akordio batera iristeko.

Bi aldeko ordezkariak Diputazioa joatea ere erabaki zenuen.

Udalbatzarrean erabaki genuen, baina gestora bat osatzeko ez genuen hitz egin. Legearen aldetik edo bestetik irtenbide bat bilatzera edo han zer egin esango zigutelakoan joan ginen, legea dagoen bezala zer egin behar genuen jakiteko.

Zer esan zizuen Diputazioan?

Garbi esan zuten 182.2 edo gestora aurrera eramateko pauso batzuk eman behar zirela. Bietan guk bideratu behar genuen, Bide Berriak bezala; haiek sartzen ziren gure zerrendetan.

Gestora edo 182.2 artikulua zenuen aukeran beraz?

Noski. Baina beraiek lehenbiziko momentutik 182.2 eskatzen zuten eta hori guk bideratu behar dugu. Horretarako akordio batera iritsi behar genuen eta nahita ez eurak gure taldean sartu.

Eta zuek horretarako prest zeundeten?

Bai baina berme batzuekin. Gure taldean sartuko balira eta legea dagoen bezala esango balute hori horrenbeste EAeko daude, lehen momentutik esan ziguten ilegalizatu egingo gintuztela.

Gipuzkoako Foru Aldundian? Bai, susmagarria delako.

Diputazioan orduan zer irtenbide eman zizuen?

Guk konpondu behar genuela. Eta esan al zizuen egoera nola bideratu?

Ez ziguten ziur esan. Alkatetza hartu beharra zegoela eta gero gerokoak.

AMALIA ADURRIAGA ▶ ANV-EAE-KO KIDEA

«Gestora osatu izan balitz, arazoak amaituko ziren»

Hauteskundeetan, ANV-EAEn zerrendaburu bezala aurkeztu zen

A. IMAZ

Hauteskundeetan lege kanpo utzi ez balituzte, ANV-EAEn lau zerrendakide Udalean egongo liriateke. Alkatea berriz, Amalia Adurriaga (Donostia, 1963) izango litzateke. Ze gertatzen ari da Leaburu-Txaraman?

Bide Berriak-eko kideek herritaren hitza errespetatzeko borondatea badutela esaten dute baina ez dute urratsik ematen. Guri hiru zinegotzi eta alkatetza emateko borondatea dutela esaten dute baina gero ez dira gurekin harremanetan jartzen. Orain arteko urratsak guk eskatutako bilerak izan dira, geuk jarri behar izan dugu eurekin harremanetan. Euren aldetik ez dago inongo jarrerarik egoera konpontzeko.

Bide Berriak-eko kideek, zazpi zinegotzi hartu beharrean hiru hartu zituen lehenik.

Udalbatzar horren aurretik bi bilera egin genituen. Benetan borondatea baldin bazuten, 182.2 artikulua aplikatzea posible zela esan genien. Baina bilera batean gauza bat esaten zuten eta hurrengoan ukatu egiten zuten. Hiru zinegotzi kargu bakarrik hartzean, herritaren hitza errespetatuko zutela ikusi genuen erabaki horrekin. Horregatik karguei uko egin zienak zoriandu egin genituen. Baina inoiz ez genuen pentsatzen ondoren egin zuten bezala, alkatetza hartuko zutenik.

Alde bakoitzeko bi ordezkariekin, Gipuzkoako Foru Aldundira joatea ere erabaki zenuen irtenbide bila.

182.2 artikulua susmagarri-gia zela esaten zuten eurek. Ondorioz Diputazioa joatea erabaki genuen udalbatzar batean. Aktetan ere hori azalduko da hori. Beraz hara joan ginen gestora bat osatzeko asmoz. Bertan ezustekoa hartu genuen ordea. Diputazioa bi kideekin elkartu ginenean, Elizegi eta Eizmendirekin, Joxe Martin Iturrik (BB) gestora osatzeko ez ginela geratu azaldu zuten. Berritua udalbatzarreko hitzak ukatu zituen; orduan ikusi genuen eurekin ezer ezin dela egin. Gaur gau-



A. IMAZ

za bat esaten dute eta bihar bestea.

Orduan apurtu ziren zuen arteko harremanak?

Bai, ondorenen ez gara berriz elkarrekin egon. Euren jokoa nolakoa izan den ikusteko, garrantzitsua da Diputazioan gertatutakoa. Izan ere, Diputazioako Elizegi eta Eizmendik mahai gainean Leaburuko idazkariak bidalitako ziurtagiri bat zuten, bilera eskaera egiteko bidali zuena. Bertan udalbatzarreko akordioa agertzen zen, eurek ukatzen zutena. Bertan, gestora osatzea joan ginela azaltzen zen. Udalbatzarreko akta eskatun Joxe Martini (BB), Diputazioan bertan, baina berak ez zuela eman esan zidan, ez zegoela aktarik. Elizegik, akta ez zegoela esan zuten, baina bai udalbatzarrean inguruko idazkariaren ziurtagiria. Akta ez zegoen baina bai idazkariak bidalitako ziurtagiria. Mesede irakurtzeko eskatu genien eta han agertzen zen, udalbatzarrean gestora osatzea hitz egin genuela, eta eurek diputazioan, inongo lotsarik gabe, berriz ere ukatu egin zuten.

Zer gertatuko zen gestora osatu izan balitz?

Arazo guztiak amaituko ziren. Diputazioan argi esan zuten, EAE eta Bide Berriak-eko gestora osatzeko adostasun bat egonez gero, beraiek bideratuko luketela. Zenbat denborako kontua den ere galde-tu nion, eta Elizegik 15 edo 20 egunetan dena konpondua egongo zela esan zuten. Nahiz eta gestora bat ez izan guk nahi genuena, gaur egun ez litzateke arazorik egongo. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Monitorea. Amezketan, aerobika edo gimnasia erakusteko monitorea behar da, asteen bi ordurik lan egiteko. 627 78 91 82.

LEITZA ▶ AISIA

Aurrera Perra Taldeak antolatuta bihar Goizuetara joan-etorria egingen dute

09:00etan abiatuko dira Inguruartetik, eta Goizuetara 13:00a aldera iristeko asmoa dute; bazkaldu ondoren itzuliko dira, 20:00a aldera Leitza egoteko



Aurrera Perra Taldeak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtero, argazkian azkeneko Zaldi Eguna. ESTI EZEIZA

NAIARA GARZIA

Bihar Goizuetara zaldi ibilaldia egingen dute Aurrera Perra Taldeak antolatuta. Oraingo 50 pertsonen izena eman dute,

baina Pakito Sagastibeltza Aurrera Perra Taldeko kideak azaldu duenez, «norbaitek izena eman nahi badu ez dago inolako arazorik». Joan-etorria egun berean egingen dute.

Bihar goizean abiatu baino lehen, gosari txikia egingen dute Inguruarten, 08:00etan. Aurrera Perra Taldeak antolatu.

Herritik abiatu eta Aizanera

joanen dira, gero Aizandik Urdolara jaitsiko dira, Urdolatik Mendibilko lepora. Handik borda asko pasako dituzte, Arriango borda, esaterako, eta handik Galbanora joko dute. Galbano ondoren Iberotik pasako dira eta jarraian Goizuetara iritsiko dira. Etortzerakoan hasieran bide bera egingen dute, Goizuetatik atera, eta Iberora, eta gero Galbanora, baina handik Ixtegiko pista hartuko dute, handik Sasainera, Arriamiako lepora, eta azkenik Leitzara jaitsiko dira. «Orotara 7 ordu eta erdi, 8 ordu inguru izanen dira», dio Pakito Sagastibeltzak.

Egun-pasa

«Gure asmoa 09:00etan ateratzea da, 13:00-13:30ean bazkaldu nahiko genuke. Goizuetako elkartean bazkalduko dugu, eta han tertulia egin ondoren aterako gara. 20:00a aldera iristeko». Leitzara iristen direnean, nahi dutenez eskolako gimnasioan koltxonek jarriko dituzte kanpokoek bertan lo egin dezaten. «Jendea animatzen bada, arratsaldean Aurreran baratzi zopa, gazta, txokolata... eta horrelakoak jarriko ditugu, indarrak hartzeko».

Aurten 50 lagun inguru bildu dira, lehengo urtean baino gutxiago, 60tik gora lagun bildu baitziren. Hamar lagun inguru-Leitzakoak dira eta gainontzeak kanpokoak, gehienak Gipuzkoak. «Lehengo urtean baino jende gutxiago animatu da, aurten ehiza dela, gero bi taldek zaldi-lasterketak zituzten, konpromiso asko zituen jendeak eta horregatik jaitsi da jende kopurua».

Joan den urtean asteburu-pasa antolatu zuten arren, aurten egun-pasa egitea erabaki dute. «Aurten egun-pasa egingen dugu, beste urte batean ze egiten dugun ikusiko dugu», dio Sagastibeltzak. «Eguraldi bikaina eman dute, guk hori eskatu genuen eta hori eman dute eta nahi duenak oraindik etortzeko aukera du».

LEITZA-GOIZUETA ▶



Egun-pasa egingen dute. E. EZEIZA

IBILBIDEA

Joan. Herritik abiatu eta Aizanera joanen dira, Aizandik Urdolara, Urdolatik Mendibilko lepora, handik borda asko pasako dituzte, artean Arriango borda, handik Galbanora, Iberora eta hemendik Goizuetara. **Etorri.** Goizuetatik Iberora, gero Galbanora, handik Ixtegiko pistetara, Sasainera, Arriamiako lepora eta hemendik Leitzara.

VILLABONA ▶ KULTURA

‘Busco novio formal... que marido ya tuve’ antzezlan arrakastatsua Gurea Aretoan gaur, 22:00etan

Antzezlan 2005. urteko abenduan estreinatu zuten eta ordudik emanaldi asko egin dituzte

N. GARZIA

Gaur Villabonako Gurea Aretoan *Busco novio formal... que marido ya tuve* antzezlan ikusi ahal da gaueko 22:00etan. Sarrerek 8 eurotan lor daitezke, 6 eurotan, gazte txartela aurkeztuz gero.

Francisco Javier del Curak zuzendutako antzezlan honek

mutil-lagun baten bila dabilen emakume baten istorioa kontatzen du, baita bere aurreko harremanaren gora-beherak ere. bere ezkontza, harremanaren gainbehera, bere senarrarengandik banatzeko erabakia... Honetaz gain, hasi berri duen bilaketa honen zergatiak ere azalduko ditu, baita mutil-lagun formal horrek nolakoa

izan behar duen ere. «Gure helburua publikoarekin une atsegin bat igarotzea da, aldarte onean», dio zuzendariak. Umorea ezinbestekoa da antzezlan honentzat, beraz. Josetxo Rekondo produktoreak azaldu duenez, «2005. urtean estreinatu genuen, abenduan. Urterotako antzezlan bat estreinatzen dugun arren, *Busco novio for-*

mal... que marido ya tuve antzezlanarekin zera gertatu zaigu, ezin izan dugula alde batera utzi, jendeak eskatu egiten baitugu». Honela, aurten beste antzezlan bat estreinatu duten arren, hainbat lekutan oraindik ere hau eskatzen diete. «Aktoreak dagoeneko oso eroso daude antzezlan honekin eta beti aretoa betetzen dugu».



Antzezlanaren une bat. HITZA

**ASTEASUKO
LANTEGI BATEAN
TORNEROA
BEHAR DA.
DEITU: 652 72 41 69**

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ikaztegieta. Irrintzi antzerki taldeak *Zuk zuk jaunaren alfabetoa* eskainiko du Ikaztegietakako kiroledegian 18:00etan.

Ikaztegieta. Herri batzarra liburutegian, Udalak deituta, Agenda 21 prozesua delata eta osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkezteko eta herritar guztion artean antzeman diren hutsuneak konponbideak bilatzen saiatzeko.

Tolosa. Golpe de Estado, Combat Rock eta Sospechosos taldeak Bonberenean 22:30ean. Oñatitik datoz beraien musika eritmoak Tolosaldean ezagutaraztera.

Tolosa. *Emetik* bertso kabareta Fronton kafetegian 23:00etan Irabxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihane Perea bertsolariekin. Aitzol udal euskaltegiaren 25. urtemugan.

Tolosa. Adinekoek laguntzeko boluntariotza ikastaroa azaroaren 12tik 16ra Gizarte zentruan, 17:00etatik 20:00etara Izarne Lizaso psikologoarekin. Izen-ematea, 663 05 72 23 telefono zenbakira deituta.

Tolosa. Igandean Vianara, Nafarroa Oinez festara, joateko autobusa antolatuta du Galtzaundi euskara taldeak. Izen-ematea, elkartearen bertan egin daiteke (Nafarroa etorbidea 6, behean).

ZINEMA

Tolosa. *Caotica Ana*, Julio Medem zuzendariaren filma emango dute Leidor aretoan asteburuan: gaur, 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, igandean 19:30ean eta astelehenean 20:30ean (Ikuslearen eguna).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte. C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
Leitza. Campos, M. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Seigarrenean hamabi

TOLOSA ▶ Ttonttor elkarteak antolatutako XX. Kultur Astea aurrera doa; gaur, bihar eta etzi ere izango dituzte ekitaldi ugari



12 patata tortilla inguru prestatu zituzten. Ikusleak ere izan ziren, usaina areagotuz, gero eta gehiago. N. U.



Patata tortillak, gutxinaka itxura hartzen. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Iragan astean ekin zioten San Esteban auzoan XX. Kultur Asteari, herri krosarekin. Orduetik hamaika ekitaldi izan dira auzoan Ttonttor elkarteak antolatuta, kulturaren hainbat alor jorraturaz.

Atzo, esaterako, arratsalde animatua izan zuten. Usain gozoa nabaria zen ingurutik igaro zirentzat. Izan ere, bertan patata tortilla lehiaketa antolatu zuten eta 12 partaide inguruk prestatu zuten tortilla. Ohitura bilakatu da lehiaketa hau, seigarren edizioa izan baita aurtengoa. Ondoren, bertaratu eta parte-hartzaile guztiek luntxa izan zuten.

Gauean, berriz, ordura arte izan diren eta izango diren kultur jardueren baitan azpimarratzeko den *Ogiyik karri etzun semia* antzezlanaren izan zen ikusgai.

EGITARAUA ▶

Kultur Astea etzi amaituko da, igandearrekin. Ordura arte, ekitaldi ugari izango dira aukeran.

URRIAK 19, GAUR
23:00. Kikee taldea, afrikar perkusio tradizionala.
Ondoren. DJ Talo eta Aritz Sound System.

URRIAK 20, BIHAR
16:00. Altxorren Bila eta Mus Txapelketa.
16:30. Haur jolasak.
18:00. Buruhandiak.
19:00. Txokolate jatea eta Bonberenea txaranga bertan.

00:00. Makala banda eta Boom shakalaka sound system.

URRIAK 21, ETZI
09:00. Diana bistulariekin.
10:00. Trikitixa auzoko baserrietan.
11:00. Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.
12:00. Toka Txapelketa gizon eta emakumeentzat auzoko txarangak alaituta.
14:00. Auzokideen bazkaria zikiro-jatearekin.
Ondoren. Kokkorrena orkestrarekin dantzaldia.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Latuko 'Xurdo'. Gaur 40 urte inguru. Latuko familiaren partetik orain bezain artista segi.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzañ Udaltzeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...